73.
zenbakia
2025eko abendua
debaldeko alea
www.kotarro.eus

kotarro

Garean-Jarduerak

LIZARRAN KANTUZ
Urtarrilak 31, otsailak 28,
Baxe Nafarroa kaletik

TXOKOLIPUINAK
Urtarrilak 29: Aitor Vinagret
Otsailak 26: Itsaso Etxeberria
Martxoak 26: Xabier Flamarique
17:30 Alfonso Ugarte aretoa

MINTZAKIDE
Eman izena:
AEKn, garean@gmail.com
edo 672050155

TABERNARIA
(antzezlan laburra) eta Pintxo potea.
Otsailak 19, Bota Peñan 19:00etan.
Antolatzaile: Garean eta Bota.

Bestelakoak

MADDI (Kontzertuak)
Irurre
Abenduak, 26, 18:00
Perokieta elkartean

Cabredo
Abenduak, 27, 19:00
Cabredoko elkartean

Eulate
Abenduak, 28, 18:00
Eulateko ludotekan

ITSAS MAITE, ITSASOAK MAITATU
(Haurrendako antzezlana)
Abenduak, 29, 18:00etan
Los Llanos Kulturagunea
+ 4 urte / sarrera: 6 €

HAURRENDAKO ZINEMA EUSKARAZ
Super Charlie
Urtarrilak, 3, 17:00etan
Los Llanos Kulturagunea (2 €)

Tigre galdua
Urtarrilak, 4, 17:00etan
Los Llanos Kulturagunea (2 €)

HITZEN LAPURRA
helduentzako ipuin kontaketa.
Otsailak 3, Clarin liburudendan.

Garean
Euskaldunon Elkartea

Zerua lapurtu dute

Otsailaren 11n, asteazken arratsaldea, Katxiporretaren ikuskizun berria izanen dugu Lizarrako Los Llanosen: Zerua lapurtu dute.

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore arduratuta daude izarrik ikusten ez dutelako. Zer gertatu da zeruarekin? Lapurtu egin al digute? Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila... unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratuz barrura begiratzeko! Etorri nahi?

Otsailaren 11n, asteazken arratsaldea, Katxiporretaren ikuskizun berria izanen dugu Lizarrako Los Llanosen: *Zerua lapurtu dute*. Antzezlan edo musikal hau 2024ko azaroan argitaratutako izen bereko ipuin eta disko ilustratuetan dago oinarrituta. Hain zuzen ere Aranzadi Zientzia elkartearekin elkarlanean sortutako ipuin horrek argi kutsadura, pantailen erabilera eta natura zaintzearen garrantzia azaleratzea du helburu.

Horrekin batera, Aranzadik eta Katxiporretak https://zerualapurtudute.aranzadi.eus/ webgunea prestatu dute, bertan material di-

daktikoa, abestiak, eskulanak... topatuko dituzue, den-denak astronomiari lotuak.

Eta momentu ezin hobea da begiak lurretik altxatu eta zerura begiratzeko, izan ere, 2026ko abuztuaren 12an eguzki-eklipse osoa izango dugu Euskal Herriko hainbat txokotan. Gehienez ere 2 minutu eta 18 segundu iraungo du eta eklipse partziala 19:30 aldera hasiko da eta osoa 20:27 aldera. Euskal Herria zeharkatu zuen azken eguzki eklipse osoa 1905eko abuztuaren 30ean izan zen. Une oso berezia bizitzeko aukera beraz, bakarka, tontor batean, kuadrillan... hori bai, ez ahaztu eklipseetarako betaurreko egokituekin begiratzea, oso arriskutsua baita eguzki betaurreko arruntekin egitea.

2026ko abuztuaren 12an eguzki-eklipse osoa izango dugu...

Eta horri lotuta, Aranzadi zientzia elkarteak astronomiari buruzko bilduma bat argitaratzeari ekin dio eta hain zuzen ere Eklipseak da lehen liburua. Virginia Garcia astronomoak idatzi du Karmele Gorroño ilustratzailearekin. Eklipseak modu errazean azaltzen dituzte eta betaurreko omologatuak dakarte berarekin. Baietz opari polita Gabonetarako?

Gaur egungo konstelazioak nazioartean onarturiko estandarrak dira, baina, nola deitu izan diegu euskaldunok zeruan ikusten genituen izar multzoei? jarraian eranafarroa.eus webgunetik hartutako Zuberoako kontakizuna. Identifikatzen al duzue konstelazioa?

672 050 155
Mintzakide
garean@gmail.com

LIBRERIA-PAPELERIA
INO
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

«Zazpi izarrak» konstelazioa

«Behin batean ba omen zen itzain aberats bat eta egun batez bi lapurrek idi parea ebatsi zioten, baina konturatu zen eta mutila bidali zuen haren atzetik.

Denbora pasatu eta hura ere ageri ez, eta neskamea bidali zuen morroiaren eta bi lapurren atzetik.

Neskamearen atzetik zaunkaka joan zen etxeko txakur txikia.

Agertzen ez zirenez, nagusia ere haien atzetik joan zen.

Aurkitzen ez zituela eta madarikazioka hasi zen nagusi koitadua. Biraoak gehiegi estimatzen ez zituen norbaitek zigortu egin zuen nagusi hura eta haserretuta, jainkoek euren ekintzetan izan ohi duten arrazoigabekeriarekin, denak ortzian iltzatuta utzi zituen.»

101 gau, Txiliku [Zuberoako kontakizuna, eranafarroa.eus-etik hartuta].

Euskara gara: Errigora eta Korrika

Euskara gara lelopean, euskararen herria zeharkatuko du 24. Korrikak 2026ko martxoaren 19tik 29ra. Atharratzetik Bilbora

Euskararen aldeko mobilizaziorik handiena Atharratzen hasiko da, martxoaren 19an, Euskal Herri hegoaldean jaieguna, eta hamaika egunen buruan Bilbon amaituko da lekukoaren barruan eraman dugun mezu sekretua irakurriz.

Korrikaren leloa

Euskara gara leloak jendartea du helburu: «Euskarak denok bil gaitzake, euskara ez baita muga, arnasa baizik. Euskara zubi gisa landu behar da. Euskal herritar guztion hizkuntza komuna izan dadin nahi dugun heinean, kohesio sozialerako tresna ere izango da». Euskarak jendarteari arnasa ematen dio, izan ere «Euskal Herriak arnasa berria behar du; euskararen herrira jauzi egin nahi duten guztien herria gara, berton jaioak izan zein kanpotik etorri. Euskara da gure arnasa, elkarren zaintzaren hizkuntza, justizia sozialaren hizkuntza...».

24. Korrikak Errigorari aitortza egin nahi dio...

Errigorari gorazarrea

24. Korrikak Errigorari aitortza egin nahi dio euskaratik, euskararentzat eta euskaraz lanean ari den ekimen herritarrari egiten ari den ahaleginarengatik, eta babesa ere adierazi nahi dio aurrera jarrai dezan bultzatzeko: «Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremuetan, euskalduntzean egiten duen esfortzuari gorazarre egiteko modukoa da, baita etorkizunerakoan hauspoa emateko ere». Errigorak bere lanarekin euskararen eremua zabaltzen du eta bere fruituekin Nafarroa hegoaldean euskalgintza laguntzen du.

Dorian Grayren erretratua
Estellerriko euskaraz

Oscar Wilderen klasikoa Lizarraldeko euskarara ekarri du Garean elkarteak Aitor Aranaren itzulpenarekin



Garean elkarteak *Dorian Grayren erretratua (Estellerriko euskaraz)* aurkeztu du, Oscar Wilderen eleberri ospetsuaren itzulpena Lizarraldeko euskara aldaerara egindako edizio berezia.

Itzulpen eta egokitzapena Aitor Arana Luzuriaga filologo eta hizkuntzalari ezagunak egin du, erreferentea Nafarroako euskalkien ikerketan. Aitor Aranak lexikografia eta pedagogiaren alorrean lan zabala du eta besteak beste 24 hiztegi egin ditu. *Dorian Grayren erretratua* itzultzeak bere bizitza-lana osatzen du, hizkuntza berpizteari lotuta, obra beste hainbat aldaeretara ere itzuli baitu, hala nola, Izarbeibarrera, Zaraitzuera eta Erroibarrera.

Altaffaylla argitaletxearekin lankidetzan egindako argitalpen berri honek jarraipena ematen dio Garean Elkarteak Estellerriko euskararekin abiatutako proiektuari. Aurrez, 2023an, *Estellerriko euskara* hiztegia argitaratu zuten, Lizarran eta inguruko haranetan hitz egiten zen euskara biltzen duena, dagoen dokumentazioan eta orain arte bildu diren testigantzetan oinarrituta.

Dorian Grayren erretratua (Estellerriko euskaraz) liburuaren aleak jada salgai daude Lizarrako liburu-dendetan, 16 euroko prezioan. ¡Estellerriko euskaldunondako opari perfektua aurtengo gabonetarako!

Liburuaren fitxa teknikoa:

- Izenburua: *Dorian Grayren erretratua*
- Egilea: Oscar Wilde
- Itzultzailea: Aitor Arana
- Argitaratzaileak: Garean Elkartea eta Altaffaylla
- ISBN: 978-84-127087-7-6
- Orrialde kopurua: 128
- Formatua: 14 x 21 cm
- Prezioa: 16 €

Euskaraz ongi pasatzeko aukera

«Hamar gutxitan plazan» ekimeneko begiraleak dira Lua Kanpion eta Maitane Rivero

✍ **Onintze Arrastia Mauleon**

Seiak hamar gutxitan zenbait haur eta guraso hurbiltzen hasi dira Santiago plazara. Ostirala da, eta ostiral guztiak bezala, euskaraz eginiko jolasak zein denbora-pasak dituzte esperoan. Gareanek antolaturiko «Hamar gutxitan plazan» izeneko ekimenak Santiago plaza hartu du zenbait hilabetez, euskara ardatz duen giro entretenigarri eta jostari batean. Lua Kanpion eta Maitane Rivero begirale aritu dira ekimena tartean.

Zergatik uste duzue garrantzitsua dela haurrek euskara espazio informaletan erabiltzea, eskolatik kanpo?

LUA: Haurrek ikusteko euskara ez dela bakarrik eskolako zerbait. Kalean eta jolasean euskaraz eginik ikusten dute euskaraz ez dela bakarrik ikasten eta eskolan hitz egiten, baita ere ongi pasa dezakegula euskaraz.

MAITANE: Txikia nintzenean hori gertatzen zitzaidan. Nire gurasoek ez dakite euskaraz, beraz, etxean gaztelaniaz egiten zen, eta euskaraz soilik eskolan. Eta gaur egun, amorru ematen dit kalean edo espazio informaletan euskaraz ez hitz egiteak.

Zer motatako jolasak eta jarduerak egiten dituzue plazan?

M: Nahiko jolas ezberdinak proposatu ditugu. Eskulanak, ur ginkana, herri kirolak, zirku eguna... Hainbat motatako jarduerak egin ditugu, beti ez errepikatzen saiatuz, eta uste dut ikusi egin dela; izan ere, ostiral guztietan haurrak oso animatuak hurbiltzen ziren jolas berria zein zen galdezka.

Zein adin-tarteko haurrak hurbiltzen dira gehien? Nola moldatzen zarete adin desberdinekin?

L: 5-10 urte tarteko haurrak ziren gehienak, baina 2, 3, 4 eta 11, 12 urtekoak ere izan ditugu. Guztiek jolastu ahal izateko jolasak egiten saiatzen ginen eta askotan bi talde egiten genituen, handien taldea eta txikien taldea, jolas ezberdin baina antzekoekin.

Nola egiten duzue haurrek euskaraz aritzeko aukerak eta motibazioa izatea?

L: Guk haiei beti euskaraz hitz egiten diegu, beraz haiek guri ere. Gaztelaniaz egiten badute guk euskaraz berdina esaten diegu, adibidez, «a que vamos a jugar» esaten badute, guk «zertara jolastuko gara?» erantzuten diegu.

M: Uste dut haur gehienak nahiko kontziente zirela euskarazko ekintza bat zela, beraz ia beti euskaraz zuzentzen ziren.

Zein dira aurkitzen dituzuen erronka nagusiak plazan euskaraz jolasteko orduan?

M: Haurrei dagokionez, askok eskolan euskaraz ikasi arren, nabaritzen da ez direla seguru sentitzen testuinguru informaletan hitz egiten —plazako jolasetan bezala— eta batzuetan gaztelaniara jotzen dute aka-

tsak edo blokeoak saihesteko. Horrekin lotuta, nire ustez haur askok, ez dute jolas batean modu naturalean adierazteko hiztegi zehatzik, hau da, eguneroko ohiko esamolde informalak ez dakizkite, eta horrek zaildu dezake euskarazko komunikazioa jolasetan.

Gurasoen inplikazioak ba al du eraginik haurren hizkuntza ohituretan?

L: Bai, asko nabaritzen da noren etxean euskaraz egiten den, edo euskararekiko jarrera positiboa duten, eta noren etxean ez.

Nabaritu al duzue haurren artean aldaketarik dinamika hasi zenetik? Hizkuntza-ohituretan edo parte-hartzean?

M: Bai. Alde batetik, hizkuntzari dagokionez, egunak igaro ahala uste dut haurrak gehiago saiatzen zirela pixkanaka-pixkanaka euskaraz hitz egiten bai gurekin, baita haien artean ere. Bestetik, parte hartzearen inguruan aldaketak eman dira baita ere. Haur gehienak oso partaide egon dira ostiral guztietan. Beste batzuk, jolasaren arabera joan eta etorri ibiltzen ziren. Ostiral batean agian 40 haur izaten genituen eta, hurrengo ostiralean 20. Edo 20 haurrekin hasten ginen ekintza eta 40rekin bukatzen genuen... Baina orokorrean, egia da jolasetan ibiltzen ziren haurrak oso partaide ikusi direla.

Zein da zuen ametsetako plaza bat hizkuntza ikuspegitik? Nolako espazio publiko bat irudikatzen duzue?

L: Nire ametsetako plazan bakoitza libre eta pozik sentitzen den hizkuntzan solastu eta jolastu dezake, azkenean, gure arteko errespetuan beti ulertuko gara.

Zuek, begirale modura, zer jasotzen duzue ekimen honetatik? Zer ikasi duzue?

L: Pertsonalki ikasi dut askotan haurrek gutxi behar dutela gero haiek bakarrik ongi pasatzeko, hau da, ailegatzen ginenean haur batzuk aspertuta ikusten genituen eta jolasak eta gero animatu egiten ziren lagunekin jolastera.

M: Alde batetik, ikasi dut euskara espazio informaletan erabiltzearen garrantzia. Izan ere, haurrak bere hitzekin mintzatzen saiatzen eta ausartzen dira, eguneroko egiturak naturaltasun handiagoz erabiltzen dituzte... Bestetik, pertsonalki, inprobisatzen ere asko ikasi dut, bat-batean euria hasi eta jolasak aldatu behar zirenean, edo 30 haurrentzako jolasa pentsatuta zenuenean eta 20 baino ez ziren agertzen, edo jolas bat ongi ateratzen ez zela ikustean eta aldatu egin behar zen... Oso gauza positiboak jaso ditut programa honi esker, bai haurrengandik, bai esperientziatik eta baita nire lankideengandik ere.

Egitasmoa: antolaketa, parte hartzea, finantzazioa eta etorkizun hurbila

Garean euskaldunon elkarteak antolatzen du plaza-jolasen dinamizazio hau eta Dindaiako begiraleek gidatzen dute. 2025eko udaberrian ekin zitzaion Lizarra Ikastolako eta Remontibal ikastetxeko D ereduko gurasoen ezinbesteko laguntzarekin. Hala, udaberrian 9 saio eskaini ziren eta urrian beste 4. Osotara 400 bat haur aritu dira plazan jolasean.

Finantziazioaren ikuspegitik, 3.000 euroko gastua izan du 2025ean, Gareanen kontura, eta bi finantzabide izango ditu euskara elkarteak: Euskarabidearen dirulaguntza eta elkarteko bazkideak. Gareanen erabaki zen Udalari finantzazioa ez eskatzea aurreikusita ez zuela diruz lagunduko, Udalak aurrekontuetan diru partida handitu ezean ez du egun laguntzen duena baino diru gehigo emango.

Neguko etenaren ondoren, Korrikarekin batera ekingo diogu plaza-jolasak eskaintzeari, martxoaren lehen hamabostaldian.

Estellerrian ardatz senarekin jaiotako euskararen kate-begi berria

Udalei, elkarteei zein herritarrei, aholkularitza eta laguntza emateko etorri da TEDERen euskara zerbitzu berria. Hona hemen bere aurkezpena.

Euskara nonahi aurki dezakegu Estellerriko izendegian (onomastikan eta toponimian) eta horrek balio erraldoiak ematen dizkio gure hizkuntzari: *historia, egote, iraupen* eta *nortasunaren* balioak, hain zuzen ere.

Historia, iragana eta oraina dira, urte luzez, belaunaldiz-belaunaldi, eraikitako bidea;

Egoteak, errealitate bat islatzen du, mendeen joanak errotutako hizkuntza bat;

Iraupenak, aurrera jarraitzeko indarra eta determinazioa azaltzen ditu;

Eta *nortasuna*, aurreko guztiaren ondorio zuzena da, gure izateko era, gure herrietako bizimodua, gure ezaugarririk kuttunena.

«Euskarak zentzu guztietan aberasten gaitu» leloa gure egin dugu TEDERen, aipatu ezaugarri guztiengatik eta eskualdearen garapen integralean gure hizkuntzak izan dezakeen garrantziarekin sinisten dugulako. Aberatsa izatea, nortasun eta kultura propio sendoa izatea ere badelako.

Sorginkeriarik gabe, lanarekin baizik, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, aukerak zabaldu nahi dizkiogu euskarari, Bargotan dela, Andosillan dela, Deikaztelun dela edo eskualdeko edozein herritan dela. Euskararen normalizazioa eta ofizialtasun osoa lortzeko helburuarekin, aurrera egiten jarraitzeko dauden aukera guztiak uztartu eta eragileen eskuetan jarri nahi ditugu.

Euskarabidearen dirulaguntzak lortzeko, euskarazko programazioak eta kanpainak egiteko eta zabaltzeko, edota paisaia linguistikoa hobetzeko, udalei, elkarteei zein herritarrei, aholkularitza eta laguntza emateko etorri da TEDERen euskara zerbitzu berria, jada burutzen duten lan itzelari kohesioa eta koordinazioa ematen saiatzeko.

Eta ez dago eskualdea hobekien ezagutzen duen erakunderik, TEDER baizik. Estellerriko landa garapen integralerako 25 urte baino gehiago lanean daraman elkartea, eskualdean dauden eragile guztien erreferentzia bilakatu nahi da, horiekin batera, indarrak batu eta euskararen eragin esparrua zabaltzen laguntzeko, herrien eta herritarren aberastasuna, zentzu guztietan, handituz.

MADDI zuzenean

«Estellerrian, euskara gara» leloarekin, TEDEReko euskara zerbitzuak, gure hizkuntzak eskualdean duen presentzia zabaldu nahi du. Dinamika horren barruan, MADDIren hiru kontzertu antolatu ditu Estellerriko bazter desberdinetan. Emanaldiak doakoak izango dira.

Irurre
abenduaren 26an
18:00etan, Perokieta elkartean.

Cabredo
abenduaren 27an
19:00etan, elkartean

Eulate
abenduaren 28an
18:00etan, ludotekan

Egunean behin, nonahi eta nornahirekin

Irailaren 29tik, azaroaren 30era, Lizarrako 10 elkarte, lehia osasuntsuan ibili ziren Egunean Behin APPren bitartez, euskaraz jokatzen.

Lehiaketan parte hartu duten zenbait lagun amaierako festan.

Estellerriko Tokiko Ekintza Taldeak-TEDERek koordinatuta, Peñaguda, La Bota peña, La Bota elkartea, Basaula, Kasino Berria, Belmecher, San Andrés peña, Kotarro, Gure Hizkuntza eta Gure Geroako ordezkariek (bi bakoitzeko), 1.260 partida jokatu eta 12.600 galdera erantzun zituzten 63 egun horietan.

Irailaren 16an lanean hasi zen TEDEReko euskara zerbitzu berriaren lehen ekimena izan zen eta proba pilotu bezala aurkeztu zuen elkarteak: «Helburua, eskualde osoko elkarteen arteko txapelketa bat antolatzea da baina Lizarrako elkarteekin proba egingo dugu lehenik».

Ekimen hau ez dago isolaturik, helburu orokorrago baten parte besterik ez da: «Euskara gure bizitzako esparru guztietan dago, lantokietan, etxeetan, eskoletan, kirol klubetan... eta, jakina, elkarteetan ere. Eskualde osoan horretaz jabetzea izango da zerbitzuaren zereginetako bat, edozein lekutan euskaraz aritzeko aukera dagoela ohartzea».

Honen adibide argia izan da burutu joko hau. Izan ere, demostratu da Lizarrako elkarte gastronomiko eta peña guztietan euskara presente dagoela eta hori ez da kontu makala.

Jokoa, La Bota peñak irabazi zuen, Joseba eta Maider ordezkari zutelarik. 30 lagunentzako kalbotada bat egiteko tokiko produktuak (sakramentu guztiekin, noski) eta peñarako mantalak eta materiala desberdinak irabazi zituzten.

Asteko parte hartzaile onenek ere saritxoak jaso zituzten, Estellerriko negozio desberdinen eskuzabaltasunari esker. Lezaun upeltegia, Bombones Torres, Barón de Ley upeltegia, Angela gozotegia, Dragon Comics, Remiro gaztandegia, Lodosilla kontserbak eta Ino liburu-denda izan dira lehenengo lehiaketa honen babesleak.

Estellerriko produktuen dastaleku diren elkarte gastronomiko eta peñen arteko lehiaketak jarraipena izango du, hurrengoan, eskualde guztiari irekia. Euskaraz jokatzeko prest?

Gure Hizkuntza Elkartea

1978. urtea. Trantsizio garaia. Komunitate-aktibazio biziko urteak. Herriak behetik antolatzen zuen bere burua arlo askotan, besteak beste, euskara galdua zegoen eremuetan berreskuratzeko lanean.

1978. urtea. Lizarra. 1978ko urtarrilaren 22an, goizeko hamarretan, 18 lagun bildu ziren Lizarrako Círculo Católico elkarteko lokaletan, euskararen aldeko elkarte bat sortzeko asmoz.

Urte bereko otsailaren 13an, lehenengo batzarra egin zen, eta bertan 35 lizarratarrek erabaki zuten «Gure Izkuntza» izendatuko den elkartea eratzeko prozedurari ekitea». Bai, «Gure Izkuntza», h-rik gabe. Urtebete geroago, 1979an, Euskaltzaindiak, eztabaida-prozesu baten ondoren, euskal ortografian «H» hizkiaren erabileraren behin betiko arautzea ezarri zuen.

Hona lehen batzordekideen izenak: Andrés Irisarri, José Torrecilla, Enrique Arriaga, Andrés Vidaurre, Julio Arbizu, José Echeverria eta Andrés Basarte.

Elkartearen helburuak hasieratik argi eta garbi finkatu zituzten: euskara komunikazio-bide gisa garatzea Lizarran, euskal kultura sustatzea eta bazkideen betekizunak ezartzea. Betebeharren artean, «ser vasco-parlante» —bai, espainolez jatorrizko barne arauetako dokumentuan—. Baina hasierako kide fundatzaileen zerrenda irakurtzean, argi zegoen baldintza hori ez zela betetzen. Nolanahi ere, haietako aunitz, arian-arian, euskaldundu egin ziren, eta ikaragarri ahalegindu ziren hasierako helburu horiek erdietsi ahal izateko. Hortaz, *Bargagorri*ren partez, bihoakie errekonozimendurik zintzoena.

Baina jarrai dezagun elkartearen historia txikiarekin. Dena oso azkar zihoan urte haietan: 1978ko otsailean, egoitza erosteko tramiteak hasi ziren, eta apirilaren 15ean egin zen lehenengo batzarra lokal berrian, Estudio de Gramática kalean, gaur egun mantentzen den kokapen berean, Erdi Aroan latinezko gramatika estudiatzen zen karrika berean.

Dena oso azkar zihoan urte haietan...

Hastapenetik, Gure Hizkuntza elkarteko kideek, euskara ikastez gain, hainbat jarduera antolatu zituzten (herri-kirolak, hitzaldiak, bertso-afariak, eta abar); halaber, euskal kulturarekin zerikusia duten zenbait ekimen bultzatzen dituzte (Santa Ageda eguneko bukaera, Korrika kulturala...). Elkarte honen paretak euskal komunitatearen babesleku izan dira, bereziki garai txarrenetan.

Gaur egun, 2025ean, bazkide berritze prozesu baten ondoren, Gure Hizkuntza elkarteak ongi jakin du garai berriei egokitzen, eta bide berriak urratuz, bizirik darrai. Zorionak, beraz, eta aunitz urtez!

denborapasak

Gurutzegrama



Euskal glifoa



ASTEKO EGUNAK

Ezker eskuin
3. «Ortzegun» Bizkaian.
5. «Asteartea» Bizkaian.
6. Azkena.
7. «Igandea» Bizkaian.

Goitik behera
1. «Larunbata» Bizkaian.
2. Astelehena.
3. «Larunbat» Iparraldean.
4. Bostgarren.

BAZKIDETU
Garean Euskaldunon Elkartean
eta lagundu gure proiektuak finantzatzen.
Kuota arrunta: 72 euro urtean.

Garean Euskaldunon Elkartea

Bazkidetzeko eta informazioa:
kotarro.eus/bazkidetu/

Gabonetako agenda

Gabonetako Artisautza Feria
Abenduak 20, larunbata eta 21, igandea.
Koroatze plazan.

Olentzero eta Maridomingi, eskutitzak ematea
Abenduak 20, larunbata, 9:30ean. Irantzutik.
Eskutitzak eman eta ipuin kontaketa Larraizako aterpean.

Ereintza abesbatza
Abenduak 22, astelehena, 19:45ean. San Joan elizan.
Sarrera doan.

Olentzero eta Mari Domingi
Abenduak 24, asteazkena,
12:00etan Llanos Kulturaguneko atzeko aldean txokolatea, musika, bertsoak, Kulki.
17:30ean Lizarra Ikastolan elkartu.
17:50ean irteera Santiago plazara.
19:00etan agurra, musika eta potea San Martin plazan.

Done Jakue Bidea abesbatza
Abenduak 26, ostirala, 19:45ean. San Joan elizan.
Sarrera doan.

Pregoilariaren irteera
Abenduak 27, larunbata, 18:30ean. Peñaguda Elkartetik.
Pregoilariak Errege Magoen etorrera iragarriko du.

Musika Bandaren kontzertua
Abenduak 27, larunbata, 19:30ean, Los Llanos kulturagunean. Sarrera: 6 €

Antzerkia euskaraz: Itsasmaite, itsasoak maitatu
Abenduak 29, astelehena, 18:00etan. Los Llanos Kulturagunea.
Gomendatutako adina: + 4 urte. Sarrera: 6 €

12. San Silvestre
Abenduak 31, asteazkena, 11:00etan, Koroatze plazatik
Prezioa: 5 € 12 urtetik aurrera.

Haurrendako zinema euskaraz
Super Charlie: urtarrilak 3, larunbata
Tigre galdua: urtarrilak 4, igandea
17:00etan. Los Llanos Kulturagunean.
Sarrera: 2 €

Errege Magoen kabalgata
Urtarrilak 5, astelehena, 18:30ean. Rua kaletik

kotarro
73. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

paper birziklatua

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

Ayuntamiento Estella-Lizarra Udala

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukiaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, osotasunean, autoreena baita.